IKER
LEGARDÓN

ZIBERJAZARPENA, GROOMINGA ETA SEXTINGA

Ertzaintzaren ustez, adingabeak interneten zelan babestu

EDUCAIDEAren laguntzarekin

TEKNOLOGIA ETA SARE ZOZIALAK

ESKUTIK

begoñazpi ikastola

KAIXO!

Internet, haur eta nerabeen eguneroko bizitzan dagoalarik, bai hezkuntza digitala, bai honi aurre egitea, familia zein eskola zein erakundeen artean partekatu beharreko zeregina izango da.

Horren harira, Iker Legardón Ertzaintzako kidearekin hitz egin genduan. Polizia-kidegoan hamarkada bi baino gehiago emoteaz gain, Euskadiko ikastetxeetan internetek dauzan arriskuei aurre egiteko lanetan be hamaika urtetan baino gehiagotan jardun dau.

INTERNET ETA ADINGABEAK: LAGUNTZEKO ETA AURRE EGITEKO GAKOAK

Ikerrek hasiera-hasieratik izan eban gai honekiko jakin-mina. Umetatik informatikazale amorratua izanik, laster jabetu zan ingurune digitalean sortu eitekezan arriskuez. Ertzaintzan sartu zanean, arlo honetan espezializatzea erabaki eban. 2013tik aurrera, institutuetan ezezik, ikastetxeetan be hezkuntza-sistemagaz lankidetzan, segurtasun digitalei aurre egiteko hitzaldiak emoten zein jarduerak egiten dabil.

BENETAKO ARDURA BADA BE, EZ DA LARRIA

Azaldu deuskunez, Euskadin ezin da esan adingabeen artean ingurune digitalari lotutako delituen gorakada kezkagarria danik; baina joera kezkagarria izan daiteke, besteak beste,kasu jakin batzuetan indarkeriaren gorakada. Dinoanez: "Badagoz kezkatzen gaituen egoera larriak" batez be, ziberjazarpena ahozko beste indarkeria-mota batzuekin edota fisikoarekin konbinatzen danean. Barriro dino, Ertzaintzarentzat kasu bakar bat nahikoa arrazoi dala jarduteko eta prebentzioa indartzeko.



5 arriskuak

internet-en

Internetek, haur eta nerabeei ikasteko eta gizarteratzeko sekulako bidea emongo deutse,

Ohiko arriskuen barri izatea izango da,

HAU ZURE ALABA IZAN LEITEKE.

oraindik prest ez badagoz be, aurre egin beharko deutsen egoeren aurrean jarriko dauz.

arrisku horreei aurrea hartzeko eta teknologiaren erabilera seguru eta arduratsuan laguntzeko lehen urratsa.

Ohiko 5 arriskuri buruz berba egingo deutsugu.

Aurre egitea guztion ardura da.

INTERNETEK DAUZAN OHIKO ARRISKUAK

Interneten adingabeei eragiten deutseen ohiko arriskuen artean, Ikerrek hiru nabarmenduko dauz.

Lehena, groominga da. Delitu honetan, persona heldu batek, sexuizaerako irudiak lortzea xede izanik, haur zein nerabeen konfiantza bereganatzeko, bere burua adingabetzat hartuko dau.
Bigarrena, sextinga da. Hau, geroago kontrol barik zabaldu daitekezan nerabeek euren artean argazki intimoak partekatzen dabezanean gertatuko da.

Eta hirugarrena, ziberjazarpena da, sare sozialetara eta plataforma digitaletara eroaten dan bullying tradizionalaren hedapena, honen eragina handituz gainera.
Dana dala, arrisku honeei beste batzuk be gehituko jakoz, besteak beste, euren adinerako desegokiak diran edukietara sartzea edo internetera konektatutako gailuak gehiegi erabiltzea, mendekotasunportaerak eragin daikiez eta.

GROOMINGA, SEXTINGA ETA ZIBERJAZARPENA DIRA, SAREAN EGOTEN DIRAN OHIKO ARRISKUETAKO BATZUK

GURASOEN KONTROLIK ONENA EZ DA TEKNOLOGIKOA: HEZIKETA DA

Ertzain honek dinoanez, arrisku horreen aurrean, familien zeregina oinarrizkoa eta garrantzitsua da. Azaltzen dauanez, estrategiarik eraginkorrena ez da teknologikoa bakarrik, heziketa kontua be bada eta. "Kontrolik onena, heziketa eta alkarrizketa da" adierazi dau.

Horrek, interneten egiten dabenari buruz seme-alabekin alkarrizketa irekia eta ohikoa izatea eragingo dau. Gurasoek parkean edo ikastolan gertatzen danarekiko interesa izaten daben neurri berean izango dau garrantzia zein sare sozialetan parte hartzen daben edota onlineko zein jokotan emoten daben denbora jakiteak.

Aurrekoaz gain, gailuen erabileraren gainbegiratze aktiboa egitea gomendatzen dau baita sare sozialetako pribatutasun-aukerak behar bezala konfiguratzea be, adingabeek partekatzen dabezan edukiak publikoak izatea ekidinez. Azkenik, teknologiaren erabileran muga argiak eta arrazoizkoak ezartzearen garrantzia azpimarratu gura dau.

PREBENTZIOA ETXEAN HASIKO DA

NERABEEKIN ALKARRIZKETA ZELAN HASI

Familiek daben erronka handienetako bat hauxe da: kontrol inbaditzailetzat hartu barik, alkarrizketa honeek zelan hasi. Ikerren ustez, seme-alaben mundu digitalarekiko benetako interesa erakustea izango da estrategiarik onena.

Adibidez, modu bat izan daiteke eurek azaldu dagien, Instagram zer dan edota Fortnite bezalako biodeojokoak zelan funtzionatzen dauan galdetzea. Dinoanez, "Une horretan irakasle izanik, guztiak zelan funtzionatzen dauan azalduko deutsue". Holan dala, familiak inbaditu gabe, bere unibertso digitalean sartu daitekez, alkarrenganako konfiantzarako zein ikaskuntzarako espazioa sortuz.

Gainera, gogoratu helduek euren kabuz be informatu daitekezala. Gaur egun, balaibide ugari dago, Youtube bezalako plataformetako tutorialak barne, adingabeek erabiltzen dabezan aplikazioak zein jokoak erraz ulertzeko.

WARNING ARRISKUA

ZER EGIN ARRISKU-EGOERA BATEN AURREAN

Familia batek bere seme edo alaba interneten delitu baten biktima izan daitekela susmatzen badau, lehenengo-lehenengo, Ertzaintzaren komisaldegira joan eta kasua azaldu beharko dau. Egoera baloratu ondoren, bertan abiaraziko dira beharrezko prozedurak.

Cyberzaintza be badago. Hau, segurtasun digitalarekin lotutako arazoei aurre egiteko orientazioa eta baliabideak eskaintzen dauzan unitatea da. Zantzu edo susmorik txikienaren aurrean, egoera larritu edota gehiagora joan ez daiten, profesionalei galdetzea komeni da.

·FAMILIEK EZ DABE TEKNOLOGIAN ADITUAK ZERTAN IZAN; SEME-ALABAK BABESTEKO LEHEN URRATSA, HONEEN MUNDU DIGITALAZ ARDURATZEA IZANGO DA.

FAMILIENTZAKO HIRU GAKO

Alkarrizketa amaitzeko, Ikerrek ingurune digitalean adingabeei laguntzeko oinarrizko hiru gomendio emon deuskuz:

1. Seme-alabekin hitz egitea. Interneten zein internetetik kanpo besteekin zelan erlazionatzen diran interesa agertuz, entzutea.
2. Gailu eta sare sozialen erabileran, muga argi eta errealistak ezartzea.
3. Hezkuntza digitala eguneroko hezkuntzaren parte dala ulertuta, laguntzea eta gainbegiratzea.

Mugikorra izateko adin egokiari jagokonez, ertzain honek ez dagoala erantzun bakarra onartu dau. Ume bakoitzak heldutasun-maila desbardina dau eta familiak dira euren erantzukizun maila ondoen ezagutzen dabenak. Adierazi dauanez, gailuren bat emotean garrantzitsuena, laguntza, jarraipena eta babesa emotea izango da.

Azken baten, gakoa ez da teklnologian bakarrik egongo, heziketa-kontu zein hezkuntza harremanetan be egongo da eta. Amaitzeko ondorio hau atera dau: “Gurasoen kontrol garrantzitsuena ez da teknologikoa izango, heziketan, alkarrizketan eta konfiantzan oinarritzen dana baino”

ETA HAU, ZURE SEMEA.

"Lehen urratsa, arriskuen barri izatea da; laguntzea, hitz egitea eta digitalki heztea da umeek seguru nabigatzeko gakoa"

ITURRIAK

- Begoñazpi Ikastolan izandako interneten dagoan segurtasunari buruzko saioan Iker Legardón ertzainari eginiko alkarrizketa oinarri izanik, EDUCAIDErekin lankidetzan eginiko lana.
- UNICEF Espainia, INCIBE, Pantallas Amigas, OME (informazio gehiagorako, estekak ikusi).

Eskerrak emon gura deutsoguz Iker Legardón ertzainari gune hau Begoñazpi Ikastolagaz partekatzeko prest egoteagaitik.

Eskutik saiorako alkarrizketan, haurtzaroan zein nerabezaoan interneten ohikoak diran arriskuen barri izan eta honeei aurre egitearen garrantziaz gogoeta baliotsuak itzi deuskuz.

Erredakzioa: Zaira Vicente. Educaideako zuzendaria.

ESKERRIK ASKO!

EDUCAIDEAren laguntzarekin

begoñazpi ikastola

ERREFERENTZIAK

1. Groominga

- UNICEF España – Seguridad en internet: cómo prevenir el grooming
- https://www.unicef.es/blog/prevencion-del-grooming-en-internet
- Instituto Nacional de Ciberseguridad (INCIBE) – Grooming: qué es y cómo prevenirlo
- https://www.incibe.es/protege-tu-empresa/que-es-grooming

2. Sextinga

- UNICEF – Sexting y riesgos digitales en adolescentes
- https://www.unicef.org/es/sexting-adolescentes
- INCIBE – Sexting: prevención y actuación
- https://www.incibe.es/protege-tu-empresa/sexting

3. Ziberjazarpena / Ziberbullyinga

- Pantallas Amigas – Ciberacoso: qué es y cómo prevenirlo
- https://www.pantallasamigas.net/ciberacoso/
- UNICEF España – Ciberacoso escolar y derechos de los niños
- https://www.unicef.es/blog/ciberacoso-y-derechos

4. Desegokiak diran edukietarako sarrera

- INCIBE – Contenidos inapropiados: guía para familias
- https://www.incibe.es/protege-tu-hijo/guia-familias-contenidos
- Pantallas Amigas – Cómo filtrar contenidos online
- https://www.pantallasamigas.net/prevencion/contenidos-inapropiados/

5. Gailuen gehiegizko erabilera

- Organización Mundial de la Salud (OMS) – Recomendaciones sobre tiempo de pantalla en menores
- https://www.who.int/news-room/fact-sheets/detail/physical-activity
- UNICEF – Tiempo de pantalla y salud mental en la infancia y adolescencia
- https://www.unicef.org/parenting-time-on-screens